

“AURREKO EDIZIOETAKO FORMATUA EGOKIAGOA ZELA USTE DUGU”



Rocío del Castillo - Urola BHI | Batxilergoa [2. saria] [3. saria]

Rocío del Castillo Urola BHIko “Narrue Latza” eta “Burnizurekingaude” taldeen arduraduna da. Talde horiek lortu dute, hurrenez hurren, Batxilergoa kategoriako bigarren eta hirugarren postua.

- Orokorrean, nola baloratzen duzue Kosmodisean parte hartzearen esperientzia?
- *Esperientzia ederra izan da, baina fase batzuk aspergarriak iruditu zaizkigu. Lehenengoa batez ere (ideiak ematea, bozkatzea, etab.). Fase horretarako erabiltzen den sistema gogaikarria iruditu zaigu. Ikasleak ez dira motibatu, ez baitzekiten zer zetorren ondoren. Bigarren planetan wikia berritzea kostatu zaigu. Edonola ere, multimedia-lanak, blogak edo musikarekin lotutako zerbait dinamikoagoa egitea interesgarriagoa irudituko litzaiguke.*
- Zure ustez, zein izan da ekimen honen alderdi interesgarriena ikasleentzat?
- *Gehien interesatu zaiena simulagailua, bideo-lanak eta argazki-bilduma izan dira.*
- Nola jaso dituzte ikasleek lortutako emaitzak?
- *Bi talderi egokitu zaie saria. Horietako batek espero zuen irabaztea, fase guztietan sailkapen ona lortu baitute. Besteentzat, aldiz, ezustekoa izan da saria jasotzea.*

Bestalde, saririk irabazi ez duten talde batzuk ez dira ados egon emaitzekin, lan onak egin badituzte ere, ez baitute puntuazio ona lortu.

- Kosmodiseako 2011-2012 edizio honetan hainbat aldaketa txertatu dira, hala nola, Grapho Planeta fasea gehitzea edo wikiei garrantzi handiagoa ematea. Zer iruditu zaizkizue berrikuntza horiek?

- *Wikia berritzea fase guztietan egin duten gauza da eta, beraz, bigarren fasean ia ez zuten ezer egiteko. Aurreko edizioko formatua egokiagoa zela uste dugu.*

- Zure ustez, zein balio onuragarri lor daitezke Kosmodisean parte hartzean?

- *Talde-lana sustatzen duen jarduera denez, taldean jorratzen diren balio guztiak lantzen dira.*

- Zein alderdi da, zure ustez, Kosmodisea 2011-2012ko onena? Eta zein alderdi dira hobetu edota aldatu beharrekoak?

- *Onera: bi taldek lortu dutela saria.*

Hobetzeko: lanerako ezartzen diren gaiak, talde txikiagoetan lan egitea sustatzea eta irakasleen puntuazio-sistema erraztea.

- Parte hartuko al duzue Kosmodiseako datorren edizioan?

- *Oraingoz bai, balorazioaren zain gaude.*

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, iruzkinak, kritikak...

- *Hirugarren fasean, maiz, simulagailuak ez zuen funtzionatzen.*

Aurtengo edizioko sari-banaketan hartutako erabakiekin ez gaude ados.

Erabakiak argi idatzita eta argitaratuta egon behar dira sari-banaketa baino lehen.